



2024KO MAIATZAREN 10EKO 278. ALKATETZAORDEKO DEKRETUA

IKUSIRIK: Aumategi Kirol Elkartearen helburuak honako hauek dira:

- Udalerriko pertsonen ongi izatea bilatzea kirolaren bitartez.
- Udalerriko bizilagunen elkar ezagutzea eta ongi pasatzearen helburuarekin sakontzea (euskaraz).
- Udalerria osatzen duten herrien gertutasuna lortzea.

KONTUAN HARTUZ: Toki Jaurpidearen Oinarriak Arauzkotzeko Legearen 25.2.l). artikulua arabera, udalerriak, beti, Estatuko eta autonomia-erkidegoetako legedian ezarritako moduan, gai hauetako eskumenak beteko ditu:

.....
l) Kirolaren eta kirol instalakuntzen sustatzea eta aisialdia betetzea.
.....

Halaber, 2/2016 Legeak, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak bere 17.1.19) artikulua arabera, aurreneko Lege horretan eta aplikatu beharreko legerian xedatutakoaren esparruan, udalerriek, honako esparru material hauetan erabili ahal izango dituzte eskumen propioak:

.....

19) Kirola eta kirol-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kirol-ekipamenduak kudeatzea.

KONTUAN HARTUZ: Martxoaren 30eko 2/2023 Legearen, Euskal Autonomia Erkidegoko jarduera fisikoarenaren eta kirolarenaren 2. artikulua xedatutakoaren arabera, jarduera fisikoa eta kirola interes publikoko gizarte-jarduerak dira, eta pertsonen prestakuntzan eta garapen integralean, haien osasuna eta bizi-kalitatea mantentzen edo hobetzen eta norbanakoaren eta gizartearen ongizatean laguntzen dute.

Pertsona guztiek jarduera fisikoa eta kirola askatasunez eta borondatez egiteko duten eskubidea aitortzen da, eta botere publikoek jarduera horren eraginkortasunerako bitarteko egokiak ezartzeko betebeharra izango dute.

Euskal botere publikoek, bakoitzak bere eskumenen esparruan, jarduera fisikorako eta kirolerako eskubidearen eraginkortasunera bideratutako politika hartuko dute. Honako printzipio gidari hauen arabera:

- Programa bereziak onartzea eta gauzatzea, jarduera fisikoa eta kirola gizarte-sektore guztietara zabaltzeko, batez ere egoera ahulenean daudenetara.
- Pertsona guztiak jarduera fisikoan eta kirolean baldintza berdinetan edo ekitatez sartzeara eragozten duten oztopo guztiak kentzea.
- Edozein motatako desgaitasuna duten herritarren artean jarduera fisikoa eta kirola sustatzea.



- Emakumeak kirol-jardueran erabat integratzen lagunduko duten baldintzak sustatzea, maila guztietan eta diskriminaziorik gabe.
- Jarduera fisikoa eta kirola aprobetxatzea euskararen erabilera sustatzeko tresna gisa.
- Jarduera fisikoa eta kirola bultzatzea, Euskal Autonomia Erkidegoan garapen ekonomiko eta sozialaren eragile gisa.
- Jarduera fisikorako eta kirolerako natura-ingurunearen aprobetxamendu egokia sustatzea, ingurumena babestearekin bateragarri eginez.
- Kirol-instalazioen eta jarduera fisikoaren sare ezin hobea planifikatzea eta sustatzea.
- Kirol-asoziazionismoa antolatzea eta sustatzea, bai eta kirolaren antolaketa-egitura pribatuak aitortzea eta babestea ere.

KONTUAN HARTUZ: Martxoaren 30eko 2/2023 Legearen, Euskal Autonomia Erkidegoko jarduera fisikoarenaren eta kirolarenaren 29. artikulua xedatutakoaren arabera, kirol-klubak izango dira irabazi-asmorik gabeko eta nortasun juridikoa duten elkarte pribatuak, persona fisikoek edo juridikoek osatutakoak, baldin eta kirol-modalitate bat edo batzuk sustatzeko edo praktikatzeko xedea badute, lehiaketa ofizialetan parte hartu edo ez.

KONTUAN HARTUZ: 1955eko ekainaren 17an onartutako Toki Korporazioen Zerbitzuen Araudiaren 23.1 artikulua arabera, Udal Korporazioek entitateei, erakundeei edota norbanakoei dirulaguntzak luzatu ahal izango dizkie betiere toki eskudantzei atxikitutako zerbitzuak edo jarduerak osatzen badituzte.

OINARRI JURIDIKOA: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 31. artikuluaekin bat etorritik, diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoak Sektore Publikoko Kontratuen Legean ezarritako zenbatekoak gainditzen dituzenean, onuradunak **hornitzaile desberdinen hiru eskaintza eskatu beharko ditu gutxienez**, zerbitzua emateko konpromisoa hartu aurretik.

OINARRI JURIDIKOA: Barrundiako Udalaren dirulaguntzak eta laguntzak arautzen dituen ordenantzen 11. artikulua arabera, aurreratutako ordainketak egin ahal izango dira, hau da, justifikazio egin baino lehenagokoak, dirulaguntzari atxikitako jarduerak gauzatu ahal izateko, finantzaketa gisa.

OINARRI JURIDIKOA: 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publiko eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoaren 3.



artikuluaren arabera, aurrenean zehaztutako Legearen I. Tituluko II. Kapituluko xedapenak honako hauei ere aplikatuko zaizkie:

.- Urtebetez 100.000 euro baino gehiagoko laguntza edo dirulaguntza publikoak jasotzen dituzten erakunde pribatuak, edo urteko sarreraren %40 – 5.000 euroko minimoarekin-, gutxienez, laguntza edo dirulaguntza publikoetatik eskuratzen duten erakunde pribatuak.

OINARRI JURIDIKOA: 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoaren 5. artikulua arabera (Printzipio orokorrak), interes sozial edo kultureko xedea besterik ez duten irabazi-asmorik gabeko entitateak badira eta 50.000 euro baino gutxiagoko aurrekontua badute, entitate horri laguntza edo dirulaguntza publiko gehien ematen dizkion administrazio publikoak eskura jarritako bitarteko elektronikoen bidez bete ahal izango dira aurreneko lege horretan ezarritako betebeharrak (halaber, 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki erakundeei buruzkoaren 49. artikulua).

GERTUA IZANIK: Aumategi Kirol Elkartek udalerrri mailan honako jarduera fisikoak bultzatu ditu:

- .- Spinning.
- .- Gimnasioa egokitua.
- .- Pilates.
- .- Yoga.
- .- Multifitness.
- .- Gimnasia + 60.

GERTUA IZANIK: Barrundiako Udalak eta AUMATEGI KIROL ELKARTEA erakundeak, 2024ko maiatzaren 09an, lankidetzaz hitzarmena sinatu dute goian aipatutako jarduera guztiak aurrera eramateko xedez.

ZERA ERABAKITZEN DUT

LEHENA.- Aumategi Kirol Elkarteari bere jarduerak udalerrian garatzeko Aurrekontu Orokorretan zehaztutako zenbatekotik %50ren aurrerakina bideratuko zaio momentuko gastuei aurre egiteko, honenbestez, 12.000,00 euroko zenbatekoa berehala luzatuko da.

BARRUNDIAKO Udala
(ARABA)



Ayuntamiento de BARRUNDIA
(ÁLAVA)

BIGARRENA.- Aurreneko gastu hori onartzea Aurrekontu Orokorretako 341.481.004 aurrekontu-sailera atxikituz.

HIRUGARRENA.- Elkartek, Legeak xedatutako publizitate aktiboa Barrundiako Udalaren web orriaren bitartez gauzatu beharko du.

LAUGARRENA.- Honako erabaki hau Aumategi Kirol Elkarteari jakinaraztea.

BOSGARRENA.- Honako erabaki hau Dirulaguntzen datu-base nazionalean argitaratzea.

Alkateorde andreak agin eta sinatu du, nire, idazkariaren aurrean eta nik horren fede eman dut.

ALKATEORDEAK

IDAZKARIAK

EDURNE EGAÑA
ARTOLA -
72746102T

Firmado digitalmente por EDURNE EGAÑA
ARTOLA - 72746102T
DN: cn=EDURNE EGAÑA ARTOLA - 72746102T,
o=U.S. - AYUNTAMIENTO DE BARRUNDIA -
BARRUNDIAKO UDALA, ou=COEFICADO
ELECTRONICO DE EMPLEADO PUBLICO,
email=edurneega@gmail.com
Fecha: 2024.05.10 15:19:43 +02'00'